

Català

Egoera juridikoa



Hiria



Kataluniako
Parlamentua
(Bartzelona,
Katalunia)

**Katalanaren egoera
juridikoa ulertzeko
oinarrizko kontzeptuak**

Marko legala

**Hizkuntzari buruzko
arauak administrazio
publikoan**

**Hizkuntzari buruzko
arauak bestelako
esparruetan**

* CD-ROM honetan alderdi juridikoei buruz jasotako informazioa 1997ko azarora bitartekoa da. Gainera, Hizkuntza Politikako Lege berriari buruzko atala dago.



Galego

Euskara

Cymraeg

Elsässisch

Egoera juridikoa

Katalanaren egoera juridikoa ulertzeko oinarritzko kontzeptuak



- 1 Autonomi Estatutuak: Kataluniakoa (3.1. art.), Balear Uharteetakoa (3. art.), Valentziako Komunitatekoa (7.5. art.)
- 2 Estatutuaren 1.1. artikulua Katalunia nazionalitate bat dela dio



Hizkuntza-zuzenbide katalanak kontzeptu berri batzuk sortu ditu, nazioarteko onspena lortu dutenak. Katalanez mintzatzen den hiru herrialdeko Autonomi Estatutuek hizkuntza berekia (1) esamoldea erabiltzen dute, eta horrekin esan nahi da hizkuntza hori dela lurralde horietan sustraiturik dagoena, historia, kultura eta nazionalitatearen aldetik (2), alde batera utzita azken garai honetan, biztanleriaren zati batek beste hizkuntza batzuk erabiltzea. Hortaz, hizkuntza berekia nazionala eta lurraldekoa da aldi berean.





Egoera juridikoa

Katalanaren egoera juridikoa ulertzeko oinarritzko kontzeptuak

3 82/1986 Epaia, ekainaren 26koa, 2. o.j.



Hizkuntza berekia deklaratzek bi ondorio juridiko ditu. Lehenbizikoa da legediak ofizial deklaratu beharko lukeela, ofizialtasun hori bere berezkotasunean oinarritzen delako. Jatorri hori lurralde berean gaztelaniak duen ofizialtasunarena ez bezalakoa da, gaztelaniarena Konstituzioaren agindua baita.

Bigarren ondorio juridikoaren arabera, katalanak bere presentzia nagusia errekuiperatzeko behar diren neurri juridiko positiboak eta laguntza instituzionala izango ditu, interes publikoa dela eta, bidezkotzat jotzen diren egoera eta lekuetan. Kontua da hizkuntza berekiak bere erabilpen ohikoa eta orokorra mantentzeko behar diren baldintza eta berme juridikoak edukitzea, ezertan ukitu gabe gaztelaniaren ofizialtasuna eta beste hizkuntza batzuekin batera bizitzea.

Auzitegi Konstituzionalaren arabera (1986) **(3)** “hizkuntza bat ofiziala da, fenomeno sozial gisara dituen errealitatea eta garrantzia edozein direla ere, botere publikoek komunikaziorako duten ohiko tresnatzat hartzen dutenean, hala haien artean nola subjektu pribatuekin dituzten harremanetan”. Bi hizkuntza ofizial biltzen diren kasuetan, ofizialtasun bikoitz horretatik heldu diren eskubide eta betebeharrak berdinak dira bi hizkuntzentzat. Bi hizkuntza ofizial egoteak ez du esan nahi testuak derrigorrez bietan idatzi behar direla:

Banderak



Egoera juridikoa

Katalanaren egoera juridikoa ulertzeko oinarrizko kontzeptuak



biak dira, bakoitza bere aldetik, baliosoak eta eraginkorrak. Adibidez, Administrazioa jotzen duenean, herritarrak zilegi du harreman horretarako zer hizkuntza nahi duen hautatzea eta funtzionarioa behartuta dago horretara moldatzera. Horregatik, koofizialtasunaz ez baino ofizialtasun bikoitzaz mintzatu behar dugu.

Bi hizkuntza edo gehiago leku berean hitz egiten direnean, denak berdintasun maila batean errespetatu nahi dituen hizkuntza politikak bi abiapuntu hartu ahal ditu, alegia, hizkuntz eskubideen pertsonalitatearen edo lurraldetasunaren printzipioak. Lehenbizikoak pertsonak aukeratutako hizkuntza ofizialean zerbitzu jakin batzuk hartzeko bidea ematen du, pertsona hori edonon dagoela ere. Kasu horretan bi hizkuntzek ofizialtasun maila bera dute Estatuaren titulartasuna duten erakunde publikoetan. Bigarren kasuan, zerbitzu publikoak hizkuntzetako batean hartzeko eskubidea lurralde jakin batzuetara mugatzen da. Kasu horretan, hizkuntza bakoitza ofiziala den bakarra bilakatzen da, edo, gutxienez, lehenetsun bat dauka besteren gainean, dagokion lurraldearen barruan.





Egoera juridikoa

Katalanaren egoera juridikoa ulertzeko oinarrizko kontzeptuak



Konstituzioaren irakurketa estatikoaren arabera, gaztelaniaz mintzatzen den herrialdeetan lurraldetasun printzipioari jarraiki behar zaio, eta katalanez mintzatzen den horietan, ordea, pertsonalitatearenari, eta, beraz, ofizialtasun bikoitza ezarri behar da, alegia, pertsonalitatearen printzipiotik heldu diren eskubideak aplikatu ahal dira hala katalanari nola gaztelaniari dagokionez. Doktrina juridiko katalanak, Autonomi Estatutuaren 3.1. eta 3.3. artikuluei buruz, irakurketa dinamikoa defendatzen du, lurraldetasunaren eta pertsonalitatearen printzipioak elkartzen dituen; horregatik, 3.1. artikulua abiapuntua finkatzen du -katalana nazio katalanaren sustraietan dagoen berezko hizkuntza den aldetik- eta baita bukaera ere, hizkuntza nazional gisara, autogobernuko erakundeek eta Kataluniako gizarteak bere-berea dutena; era berean, 3.2. artikuluan abiapuntuaren (zergatia) eta bukaeraren (helmuga) arteko bidea finkatzen du: kontua da, pixkana-pixkana neurriak hartuz, katalana esparru publiko guztietan orokorki eta lehenetasunez erabiltzea, gaztelaniarekin partekatzen duen ofizialtasuna ezertan ukatu gabe.





Andorran, katalana da hizkuntza ofizial bakarra. Espainiako estatuan hizkuntza arloaren marko legala osatzen dute Espainiako Konstituzioak, Kataluniako, Valentziako Komunitateko, Balear Uharteetako eta Aragoiko autonomi estatutuek, Kataluniako eta Balear Uharteetako hizkuntza normalizatzeko legeek eta Valentzieraren Erabilera eta Irakaskuntzari buruzko Legeak.. Legeen arabera, katalana Katalunia, Balear Uharte eta Valentziako Komunitateko hizkuntza berekia da, eta gainera, ofiziala, gaztelania bezalaxe.





- 4 4/1979 Lege organikoa, azaroaren 18koa
- 5 7/1983 Legea, apirilaren 18koa, Hizkuntz Normalizazioari buruzkoa

Espainiako estatua

Oinarrizko marko legala konstituzionaltasun bloke deiturikoak mugatzen du (Espainiako Konstituzioa, Autonomi estatutuak eta Auzitegi Konstituzionalaren epaiak). Konstituzioak ezartzen du gaztelania ofiziala dela Estatu osoan, eta beraz, herritar guztiek dutela hura ezagutzeko beharra eta erabiltzeko eskubidea; Estatutuko gainerako hizkuntzak ere dagozkien Autonomi Elkarteetan ofizialak dira, Estatutuetan finkatutakoaren arabera; beraz, autonomi estatutuei esleitzen die beste hizkuntza bat duten autonomi elkarteetako hizkuntz araubidearen erregulazioa. Azkenik, Espainiako hizkuntz modalitate desberdinek kultur ondarea osatzen dutela ezartzen du, eta begirune eta babes bereziak izango dituela.

Katalunia

Autonomi Estatutuak (4) ezartzen du katalana Kataluniako hizkuntza berekia dela. Deklarazio horren bidez, katalana Kataluniako ohiko hizkuntza bihurtzeko hartzen diren neurriak legitimatzen ditu Estatutuak, gaztelaniaren ofizialtasunak sortzen dituen hizkuntz eskubideei kalterik egin gabe, katalanarenak bezalakoak baitira. Ondoren, katalanaren eta gaztelaniaren ofizialtasuna aipatzen du. Printzipio horiek guztiak Kataluniako Parlamentuak landu ditu Kataluniako Hizkuntz Normalizazioari buruzko Legean (5), bestelako legeek eta arloz-arloko arautegiek osatzen duten horretan.



ESTATUT
D'AUTONOMIA
DE CATALUNYA

GENERALITAT
DE CATALUNYA

BARCELONA 1986





- 5 bis 1/1998 Legea, urtarrilaren 7koa, Hizkuntza Politikari buruzkoa.
- 6 2/1983 Lege organikoa, otsailaren 25ekoa
- 7 3/1986 Legea, apirilaren 29koa
- 8 Auzitegi Konstituzionalaren 123/1988 Epaia, ekainaren 23koa
- 9 5/1982 Lege organikoa, uztailaren 1ekoa
- 10 4/1983 Legea, azaroaren 23koa

Gerora, 1998an, Hizkuntza Politikako Legea (5 bis) onartu da, Hizkuntza Normalkuntzakoa ordezkatzera datorrena. Argitaratu zenetik udazkena bitartean, bost dekretu argitaratu dira Legea garatzeko.

Balear Uharteak:

Autonomi Estatutuak **(6)** ezartzen du katalana Balearretako hizkuntza berekia dela eta, gaztelaniarekin batera, ofiziala dela. Gero, Balearretako Parlamentuak Hizkuntz Normalizazioari buruzko Legea onetsi zuen **(7)**, Kataluniakoak bezalaxe, Autonomi Estatutua garatzeko. Auzitegi Konstituzionalak Lege horretako artikulua batzuk Konstituzioaren kontrakoak zirela deklaratu zuen **(8)**. Lege hori arloz arlo emandako hainbat xedapenekin osatu da.

Valentziako Komunitatea:

Oinarrizko bi arauak Autonomi Estatutua **(9)** eta Valentzieraren Erabilera eta Irakaskuntzari buruzko Legea **(10)**, Estatutuaren 7. artikulua garatzen duena. Arau horietan finkatu zen "Valentziera" izena, hizkuntzaren batasunari begira ondorio txarrak izan zituena. Valentziako legeriak Kataluniakoak eta Balearretakoak baino babes txikiagoa ematen dio katalanari eta muga linguistikoa ezartzen du katalanaren eta gaztelaniaren nagusitasuna duten eskualdeen artean.



ESTATUT
D'AUTONOMIA
DE CATALUNYA

GENERALITAT
DE CATALUNYA

BARCELONA 1986





- 11 5/1996 Lege organikoa, abenduaren 30ekoa, 7. Art.
- 12 8/1982 Lege organikoa, abuztuaren 10ekoa
- 13 1993ko apirilaren 28koa

Aragoiko ekialdea

Aragoiko Autonomi Estatutuaren (12) Erreformat (11) honela dio: “Aragoiko hizkuntza eta hizkuntz modalitateak babestu egingo dira. Haien irakaskuntza eta hiztunen eskubideak bermatuko dira, haien erabilera nagusi duten eskualdeetarako Aragoiko Gorteen lege batek finkatzen duen bezala”. Arau hori ez da oraindik eman.

Andorra

Konstituzioaren 2. artikulua araberaren (13), Estatuko hizkuntza ofiziala katalana da.

Frantziako hego-ekialdea eta Alguer

Frantziako Pirinioetako Departamentuan eta Sardiniako Alguer hirian ez dago hizkuntzari buruzko legeria berezirik.





Egoera juridikoa

Hizkuntzari buruzko arauak
administrazio publikoan



Espainiako Estatuan aplikagarria den araudiak ofizialtasun bikoitza ezartzen du, Justizi Administrazioan eragin txikiagoa duena eta lurraldeetako administrazioetan katalana nahiago duena.

Toki
administrazioa





- 14 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Administrazio Publikoaren Araubideari Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzkoa. Egoera juridikoa
- 15 6/1985 Lege organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialari buruzkoa (azaroaren 9ko 16/1994 Lege organikoaren bidez aldatua), 231 art.

Espainiako Estatu

Oinarrizko arauaren arabera (14), administrazio publikoekiko harremanetan, hiritarrek eskubidea dute beren Autonomi Elkarteko hizkuntza ofizialak erabiltzera. Estatuko administrazioak izapidatutako prozeduretan gaztelania erabiliko dela finkatzen du, baina administrazio horrek Autonomi Elkarte batean dituen organoetara jotzen dutenean, hiritarrek zilegi izango dute Elkarte horretako hizkuntza berekia erabiltzea eta, kasu horretan, prozedura pertsona interesatuak aukeratzen duen hizkuntzan izapidatuko da. Lege horretan ezartzen da Autonomi Elkartetik at eragina duten agiriak gaztelaniara itzuliko direla eta itzulpena administrazio publiko izapidatzailearen esku egongo dela.

Justizi Administrazioa

Oinarrizko arauaren arabera (15), egintza judizialean, epaitegi eta auzitegietako funtzionarioek gaztelania erabiliko dute, baina Autonomi Elkarteko hizkuntza berekia ere erabili ahalko dute, aldeentzat babesik eza sortzen ez bada. Auzian parte hartu eta funtzionario ez direnek, nahi duten hizkuntza aukeratzeko eskubidea dute, hala ahozko adierazpenetan nola idatzizkoetan. Gainera, gaztelania ez den hizkuntza ofizial batean idatzitako egintza judizial eta agiriak ofizioz itzuliko dira Autonomi Elkartetik at eragina dutenean, hura jaso behar den eskualdeko hizkuntza berekia bidaltzen den eskualdekoa bera denean salbu.





- 16 7/1983 Legea, apirilaren 18koa Egoera juridikoa
- 17 107/1987 Dekretua, martxoaren 13koa
- 18 Partzuergoaren Osoko Bilkuran onetsia
- 19 Adib.: Girona, Tarragona, Tortosa, Vic, etab.

Administrazio autonomoak eta toki administrazioak:

Katalunia:

Hizkuntz Normalizazioari buruzko Legeak (16) ezartzen du katalanak, Kataluniako hizkuntza berekia baita, izaera hori bera duela Generalitateari, Kataluniako lurralde administrazioari, Toki administrazioari eta Generalitatearen menpeko gainerako erakunde publikoei dagokienez. Horrek esan nahi du katalana izango dela administrazio horietan normalean erabili beharreko hizkuntza, beti ere norbanakoen hizkuntz eskubideak babestuz; beraz, gaztelania ere erabili ahal dute horrela nahi duten hiritarrek, administrazio horietara jotzen dutenean. Generalitatearen kasuan, dekretu baten bitartez (17) garatu da printzipio orokor hori, hizkuntza ofizialen erabilera administrazioan arautzen duen dekretuaren bidez, hain zuzen. Toki administrazioan, garapena pixkanaka egin da, abiapuntutzat harturik katalanaren erabilera arautzeko 1991n egindako eredu bat (18), gaur egun udal askok onetsi dutena (19).





- 20 3/1986 Legea, apirilaren 29koa
- 21 100/1990 Dekretua, azaroaren 29koa
- 22 4/1983 Legea, azaroaren 23koa

Balearrak

Hizkuntz Normalizazioari buruzko Legeak (20) ezartzen du katalanak, Balearretako hizkuntza berekia baita, izaera hori bera duela gobernu autonomoari, Parlamentuari eta Uharteetako Kontseiluei dagokienez, hala nola, orokorrean Administrazio Publikoan, Toki administrazioan eta Autonomi Elkartean menpeko udal eta erakunde publikoetan. Lege horri garapena eman zitzaien, hizkuntza ofizialek Administrazio autonomoan duten erabilera arautzen duen Dekretu baten bidez (21). Toki administrazioari dagokionez, udal batzuek katalanaren erabilera arautzeko erregelamendu bat onetsi dute.

Valentziako Komunitatea

Valentzieraren erabilera eta Irakaskuntza arautzen dituen legearen arabera (22), valentzierak, Autonomi Elkarteko hizkuntza berekia baita, izaera hori bera dauka Valentziako Generalitatean eta haren Administrazio publikoan, Toki administrazioan eta menpeko udal eta erakunde publikoetan. Lurrean ez da garapenerako araurik eman administrazio autonomoan. Gainera, oso udal gutxi onetsi dute hizkuntza erabiltzeko araudirik.

Andorra, Frantziako hego-ekialdea eta Alguer

Andorran, Estatuko hizkuntza ofiziala katalana denez gero, derrigorrezkoa da hizkuntza hori erabiltzea bertako administrazio publikora jotzean. Frantziako hego-ekialdea eta Alguer: ez dute horri buruzko legeria berezirik.





Espainiako Estatuan, katalanez mintzatzen den lurralde garrantzitsuenetako gobernuek irakaskuntza izan dute lehentasunezko gaia, garrantzi gutxixeago eman diete kultur industriei eta oso gutxi arlo sozioekonomikoari.

Valentziako lonja





Casa de la Vall
(Andorra)



- 23 Errege Dekretuak: 2092/1978, ekainaren 23koa; 2003/1979, abuztuaren 3koa; eta 2193/1979, irailaren 7koa.
- 24 7/1983 Legea, apirilaren 18koa, 20. art.
- 25 79/1984 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Valentziako Generalitateko Kontseiluak emana.
- 26 3/1986 Legea, apirilaren 29koa, 20. art.
- 27 244/1991 Dekretua, Kataluniako Generalitateak emana.

a) Irakaskuntza

Espainiako Estatuan, 1978. urtetik katalana derrigorrezko irakasgaia da hizkuntza hori mintzatzen den komunitate gehienetako eskola eta institutuetan (23). Katalunia (24), Valentziako Komunitate (25) eta Balearretako (26) legeriek neurriak hartu dituzte katalana irakaskuntzarako hizkuntza gisara gero eta gehiago erabiltzeko; pixkana-pixkana, katalanez jakitea derrigorrezko betebeharra izatera ailegatu da irakasleentzat (27).

Katalunia, Balearrak, Valentziako Komunitatea

Hizkuntza normalizaziorako hiru lege horien helburuetako bat katalanez jakitea bermatzea da; hezkuntzari dagokionez, helburu hori betetzeko, ikasleek bi hizkuntza ofizialak menperatu behar dituzte derrigorrezko ikasketak bukatzean. Hiru legeek ematen dute lehen irakaskuntzan hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta ondoko mailetarako, Autonomi Elkarte bakoitzak bere arau berekiak ditu. Kataluniako Hizkuntz Normalizazioari buruzko Legearen arabera, gainera, “katalanak, Kataluniako hizkuntza berekia baita, izaera hori bera du irakaskuntzaren maila guztietan”.





Egoera juridikoa

Hizkuntzari buruzko arauak
bestelako esparruetan



Katalunia eta Balearretako irakaskuntza unibertsitarioan, irakasle eta ikasleek eskubidea dute beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean mintzatzeko; Valentziako Komunitateko legerian ez da horri buruzko inongo aipamenik egiten.

Katalunian, katalanez eta gaztelaniaz jakitea ezinbesteko betebeharra da irakasletza publikoan sartzeko, irakaskuntzaren maila guztietan, unibertsitatekoa izan ezik, baina unibertsitate batzuek katalanaren eskakizuna aratu dute hurrengo deialdietarako. Valentziako Komunitatean eta Balearretan, gero eta gehiago eskatzen da katalanez jakitea hainbat lanpostutarako.

Andorra, Aragoiko ekialdea, Frantziako hego-ekialdea eta Alguer

Andorrako Printzerrian, ikasleen gurasoek hiru aukera dituzte haien seme-alaben irakaskuntzarako: Frantziako Gobernuak, Espainiakoak eta Andorrakoak eskaintzen dituztenak. Azken horretan bakarrik ematen da katalanezko irakaskuntza, kongregazioetako eskolekin batera. Frantziako hego-ekialdean, Aragoiko ekialdean eta Alguer hirian, katalanaren irakaskuntza borondatezkoa da.





b) Arlo sozioekonomikoa

Normalizazioari buruzko legeek, behartzeko arauak baino gehiago, titulartasun pribatuko esparruetan katalana erabiltzeko jarduerak aurreikusten dituzte. Katalunian, eta are gehiago Andorran, badaude arau batzuk, irudi publikoan katalana erabiltarazten dutenak edo kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntz eskubideak aitortzen dituztenak.

Katalunia

Kontsumitzailearen Estatutuak (28) eskubidea ematen die hiritarrei maizenik erabiltzen diren kontratuen ereduak katalanez eskuratu eta hainbat informazio hizkuntza horretan jasotzeko. Lege hori garatzeko, xedapen batzuk eman dira merkataritzako zenbait establezimendu beren zerbitzu, prezio eta fakturei buruzko argibide batzuk katalanez ematera behartzeko. Katalanez mintzatzen den gainerako herrildeetan neurri puntual batzuk hartu dira, maila juridikorik gabeak.





- 29 7/1983 Legea, apirilaren 18koa, art. 21.
- 30 7/1983 Legea, apirilaren 18koa, art. 23.
- 31 1997ko ekaina, Kataluniako Parlamentuaren lege proposamena
- 32 7/1983 Legea, apirilaren 18koa, art. 22.
- 33 7/1983 Legea, apirilaren 18koa, art. 25.
- 34 8/1996 Legea, uztailaren 5ekoa.
- 35 8/1996 Legea, uztailaren 5ekoa, kable bidez banatutako ikusentzunezko programazioaren erregulazioari buruzkoa
- 36 17/1994 Legea, ekainaren 8koa

c) Kultur industriak eta komunikabideak

Katalunia

Kataluniako Hizkuntz Normalizazioari buruzko Legeak Generalitatea behartzen du hizkuntza eta kultura katalanak bultzatzera eta Administrazio publiko horren menpe dauden irrati emisore publikoetan (lau) eta telebistetan katalana normaltasunez erabiltzera (29). Legeriak normalizazioa sustatzen du kultur industrietan (zinegintza, antzerkia, kantagintza) (30); sustapen hori gauzatzeko, batzuetan emisioko gutxienerako kuota ezartzen dira (31), dirulaguntzak (32) edo beste laguntza batzuk (33).

Badira beste lege batzuk, eremu jakin batzuk arautzen dituztenak, adibidez, frekuentzia modalutuko edo tokian tokiko telebistako emisoreetan, katalana babesteko neurriak ezartzen dituztenak (34). Legeria horren arabera, pelikula, telesail edo dokumentalak, jatorrizko hizkuntzatik besteren batera itzultzen baldin badira edo azpitoluak jartzen bazaizkie,aldi berean, katalanez emango dira. Kable bidezko telebistaren kasu bereziko, arau katalanak (35) ezartzen du Europako lanak erakusteko utzi den denboraren % 50aren barruan, jatorriz Kataluniako bi hizkuntza ofizialetako batean egindako lanak emango direla; % 50 horren erdia katalanez izango da. Era berean, zinegintza babestu eta sustatzeko Estatuko legean (36) gutxienerako kuota batzuk finkatzen dira Espainiako edozein hizkuntzatara bikoiztutako pelikulen programaziorako.

Katalanak hartzen dituen gainerako eskualdeak

Ez dute kultur industria eta komunikabideentzako neurri berezirik.

